Sagardogilleak ez daukate jairik

TXOMIN GARMENDIA

Gure sagardogilleak agorraren azkenean asi ziran ontziak betetzen, eta azaroa etorriko zaie askori, lan oiek bukatzerako. Esan liteke, garai batean Gipuzkoa'ko basarri geienak sagardotegi zirala; bizimoduak ala aginduta, etxe jakin batzuk bakarrik gelditu zitzaizkigun sagardotegi, baiña gelditu zaizkigun oietan ez da giro. Ezer bada-ta, modan jarri zaigu oraintxe sagardotegira joatea. Eta nork pentsatu bear zun garai batean, gaur ainbat emakume sagardotegian ikustea? Emakumeak gogoko dun leku ark nekez egingo du porrot, eta alde ortatik pozik bizi litezke gure sagardogilleak.

Danak aitortzen digute, emengo sagarra dala sagardotarako onena; baina garai bateko sagasti-lurrak piñuz estali genitun ezkero, kutsua emateko lain dira emengo sagarrak. Agian, biar edo etzirako gauzak aldatu litezke.

Besteren negozio ori, mauka iruditzen zaigu askotan, baiña beti ez da ala izango. Ogeita amabi peseta edo geiago pagatu kilo sagarra eta begiak argi ibilli bearrak daudela esango nuke. Eta ez pentsa, sagarrari kentzen dioten guztia probetxurako izaten danik. Sagardotegi itxurazko batean, millaka litro izaten dira alperrik galtzeko. Eskerrak gaurko aurrerapen eta makinaren bidez, garai bateko aldean doble kentzen diotela sagarrari.

Prantzi'tik ekarri bear

Asturias'en ez omen da sagar geiegi aurten, Galizi'n ere bai omen dira utsuneak eta sagardogille batek esaten zidanez, Prantzi'tik ekarri bearrean aurkituko omen dira ain bearrezko duten ale ori. Ez emengoak bakarrik, baita asturiastarrak ere.

Garai batean uste izaten gendun, sagardo-sagarra emen bakarrik izaten zala; orain iru urte Inglaterra'n izan giñanean, arrigarrizko sagastiak ikusi genitun. Industri aundi batzuk ziran sagardotegi aiek, etzidaten grazi geiegi egin, baiña sagastiak!!

Badabil kezka bat gure artean emengo sagardoari buruz: kimikarik bai ote duten ala ez. Galdera ori, sagardogille batzuri egin diogunean, ezetza gogorra eman digute eta ni ortan nago. Adibidez, kimikarik balu, ez luteke ainbeste ezberdintasun bear. Inglaterra'ko sagardoak bai, aiek kimikatuta daudela ez dago zalantzik; txanpainaren brilloa eta garbitasuna daukate ango sagardoak eta ori, kimikaren bidez iritxi bearko da. Alkolik bat ere ez dun sagardoa ere badaukate txoperrantzako eta abar, eta nola kimikarik gabe? Gaiñera ango sagardotegiak, berreun langille dauzkatenak eta geiagoak dira, eta ori bera dago esaten; an kimika badabillela.

Negozio edo bizimodu bat itxura antzean dijoanean, gure lur ontan etsaiak sortzeak ez gaitu arritzen noski eta gure sagardogillean etsai, jatetxetako nagusiak eta tabernariak gertatu dira. Ez gera sagardo-zale geralako bakarrik sagardotegira joaten, beste jatetxe oietan baiño askoz merkeago jaten degulako baizik. Sagardotegi geienetako jatekoa jakiña da noski baiña zer geiago bear du gu bezelakoak? Sagardotegietako baiño lujo geiago ere zertarako degu?

Ez derizkiot jatetxetakoak geiegi kobratzen dutenik; lujo ikaragarrian jarrita dauzkate sukalde, jan-gela eta gaiñerakoak eta ori, pagatu bearra dago. Ez ote gaude neurritik pasata? Donosti'n edo erri aundi batzutan lujoko jatetxeak bear dute noski, baiña mendi muturretan basarri izan ziranak dauzkagu jatetxe jarrita eta nola? Arrigarria emengo jatetxe eta taberna aukera. Danak luzituko ote dute? Banaiz naiko bildur. Bestela, miraririk aundiena emen gertatu bear du.

Beraz, denboraz izango degu naiko sagardo txirritik; bakallo eta txuletik ere ez da paltako noski, eta zer bear degu besterik? Pentsa dezagun mundutar danak ez dirala gu bezela bizi. Ez orixe.

Gure sagardogilleak
ez daukate jairik,
beren upel ederrak
ondo bete nairik.
Ta ez bedi paltatu
gu pozteko gairik;
sabel utsean ez da
txolarte alairik.